

EH Bilduk gobernu taldeak hizkuntza normalkuntzako teknikari lanpostua desagerrarazi duela salatu du

Arte Eskolan beste bi amortizazio ere egin ditu Udal Gobernuak

Amurrio. 2023-07-27. EH Bilduk EAJ-PSEren Gobernuak Amurrioko Udalean hizkuntza normalkuntzako teknikari postua desagerrarartzeko hartutako erabakia salatu egin du. EH Bilduren esanetan, erabaki "arbitrarioa" da, eta atzerapauso izugarria suposatzen du euskararen normalizaziorako. "Ahaztu egiten zaie euskara ere hizkuntza ofiziala eta gutxitua dela eta, beraz, hizkuntza-normalkuntzako teknikariaren plaza funtsezkoa dela Amurrion. Euskararen kontrako beste eraso bat da, udalekuak euskaraz egitea beharrezkoa da, baina ez nahikoa; hizkuntza politika erreal eta eraginkorrak behar ditugu herrian ", nabarmendu du Jon Berganza Urruelak.

Hori ez da EAJ-PSE Gobernuak Amurrioko Udalean egin duen amortizazio bakarra. Era berean, zerbitzuak murriztu dira Arte Eskolan, eta bi plaza kendu dira, Errusiako portzelana eta patchwork tailerrak bertan behera utzi ondoren.

"Plazen amortizazioa justifikatzen duten irizpide argiak ezartzea eskatzen dugu. Izan ere, horrela jokatzek ez du bermatzen ez gardentasuna ez aukeraberdintasuna, eta atea irekitzen ditu azpikontrataziorako eta, beraz, pribatizaziorako ", gaineratu du Jon Berganza Urruelak.